



MENDIAZ GOZATZEKO HIRU AUKERA

Oargi mendi elkarteak hiru txango antolatu ditu abuzturako; horietako bi Alpeetara dira eta hirugarrena, Atlasera >3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-05-07**

VIURTEA 1.427.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Ana Usabiagak zazpi domina lortu ditu Espainiako Pista Txapelketan

TOLOSA Tolosa CF taldean aritzen den txirrindulariak urrezko sei domina eta zilarrezko bat irabazi ditu

EUSKADIKO TXAPELKETA Elite mailan Berastegiko Arantzazu Azpirozek lehenengo postua lortu du z



Ana Usabiaga, erdian, pasa den asteburuan, Tafallako Txapelketako podiumeko posturik altuenean. HITZA

EAJri «mozioa erretiratzeko» eskatu dio ezker abertzaleak

VILLABONA Mozioak «eskubide eta indarkeriaren irakurketa partziala» egiten duela diote 4

Nafarroako Herri Arteko Txapelketari ekinen diote asteburuan

LEITZA Nafarroako 8 herrik hartuko dute parte eta finala uztailaren 25ean izanen da 7

Musika, dantza emanaldiak eta bertsoak protagonistak izaskunen

IBARRA Auzoak asteburuan ospatuko ditu jaiak; egitarau oparoa antolatu dute 6



hitza

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat



Harpidedunentzat
%25
merkeago

Tolosako
HITZAren
bulegoan
eskuragarri.

elastikoarekin
poltsa opari!



Sei urre eta zilar bat lortu ditu Ana Usabiagak Espainiakoan

Txirindularitza » Euskadiko Txapelketan Arantzazu Azpiroz berastegierra gailendu da elite mailan.

ERREDAKZIOA

Espainiako junior mailako Pista Txirindulari Txapelketak jokatu dituzte pasa den asteburuan Tafallako Migel Indurain belodromoan, eta Tolosa CF taldeko Ana Usabiaga ordiziarrak gailendu da bertan, 6 urrezko domina eta zilarrezko bat lortuz.

500 metroko proban, banakako abiaduran, taldekako abiaduran, banakako jazarpenean, scratchean eta keirinean lortu zituen, hain zuzen ere urrezko dominak eta taldekako jazarpenean, berriz, zilarrezko domina lortu zuen Ana Usabiagak. Ordiziarrak beste inork orain arte Espainiako Txapelketatan lortu ez duen marka egin zuen zazpi domina horiek lortuta.

Denera, 17 domina lortuak ditu orain arte, kadete eta junior mailan. Azken domina hauekin, Usabiagak Hegoafrikan, Ciudad del Cabo hirian, uztailearen 12tik 20ra jokatu den junior mailako errepideko eta pista txirindularitzako Munduko Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du. Txapelketa honen ostean, Europako Pista Txapelketan parte hartzeko aukera izango du Usabiagak. Hau irailaren 3tik 9ra bitarte izango da Pruszkow-en (Polonia). Pasa den urtean, ordiziarrak Mexikon izan zen mundu mailako Txapelketan 35. postua lortu zuen, eta Erruma-



Ana Usabiaga garaipena ospatzen Tafallako Txapelketan. HITZA



Irene Usabiaga, Irene San Sebastian, Maider Oteiza eta Arantzazu Azpiroz, Erdoñanako proba eta gero, podiumean. HITZA

nian izan zen Europakoan, berriz, bosgarren postua eskuratu zuen txirindulariak.

Euskadikoan ere bikain

Bestalde, iragan asteburuan Erdoñan (Araba) eta Sopelan (Bizkaia) jokatu diren txirindulari lasterketan eskualdeko txirindulariek ere emaitza bikainak lortu dituzte, eta horren adibide da Eibarko Debarrena-Kirologi taldean korritzen duen Irene San Sebastian Lasa tolosarrak junior mailan garaipena eskuratu zuela. Erdoñanakoan Euskadiko Emakumezkoen Txapelketata jokatzen zenez, 2008ko Euskadiko txapelketa da tolosarra. Maila berean, hau da, juniorretan, Tolosa CFko Ana Usabiaga bigarren postuan geratu da.

Kadete mailan, larunbatean Tolosa CFko Yanila Ayala geratu zen bigarren; hirugarren Irene Usabiaga, zazpigarren Maite Murgia eta zortzigarren Aitziber Azaldeg. Hauek ere Tolosa CFkoak. Igan dean, Ayala eta Usabiaga hirugarren eta laugarren geratu ziren hurrenez hurren, eta sailkapen orokorrean, Irene Usabiaga hirugarren postuan geratu da, eta Aitziber Azaldeg zazpigarren.

Elite mailan Azpiroz lehena

Bizkaia Durango taldeko Arantzazu Azpiroz berastegiarrak lehenengo postuan bukatu zuen lasterketa larunbatean, elite mailan, Camila Ayala laugarren geratu zen, Maider Oteiza 9., Joana Eslava 11., Lide Larrañaga 13. eta Almudena Marquez 14. Azken hauek Tolosa CFkoak. Iganeko lasterketan Camila Ayala eta Maider Oteiza seigarren eta zazpigarren geratu ziren. Sailkapen orokorrean Arantzazu Azpiroz geratu da lehenengo postuan, eta Itsaso Leunda hernialdearra laugarren postuan.

Suspertzailetza Astea ari dira ospatzen Tolosaldea GLH Institutuan

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutua Suspertzaitza astea ari da ospatzen, gainerako Lanbide Heziketa Zentroek bezala. Aste honetako ekitaldien helburua «gizartea eta hezkuntza mundua suspertzaitza kulturaren sentsibilizazioa» dela azaldu dute. «Gure zentroko beste Lanbide Heziketa zentroek bezala aktiboki dihardu ikasleek bultzaturiko enpresak informatik, HamaikaWeb, OSM informatika, GameShop, esaterako».

Tolosaldea GLHI Suspertzaitza sare batean barneratua dago 2001 urtetik epe honetan ikasleek bultzaturiko hainbat enpresa sortu direlarik. Hala, ekitaldi bat prestatu du etzargar ondorengo egitarauarekin: 10:00etan Lanbide Heziketako lehenengo mailako ikasleak eta irakasleak izango dira 1. go suspertzaitza ekitaldian, eta bigarrenaren, 11:00etan, ikasle taldeak eta irakasleak. 12:00etan, berriz, luntxa prestatuko dute.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 652339

Asteasu.

Medikua: 943 692423

Baliarrain.

Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian.

Medikua: 943 681134

Ibarraldea.

Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta.

Medikua: 943 653329

Irura.

Osasun zentroa: 943 690720

Leitza.

Osasun z.: 948 510800

Orendain.

Medikua: 943 655595

Orexa.

Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzarain autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIAK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Emaitza onak lortu ditu Senpereko triatloian TTT-Iparkal taldeak

ERREDAKZIOA

Balorazio oso positiboa egin dute Tolosaldeko Triatloi Taldea-Iparkaleko eta eskualdeko triatloiariek urteko lehenengo triatloian inguruan, Senperen.

Proba distantzia olinpikoan burutu zen (1.500-40-10) eta guztira 278 partaide izan ziren irteeran. Aimar Agirresarobe (Kruff-Atletiko) 7. Iritsi zen, lasterketa oso erregularra burutu ondoren, Aitor Tejeria (Lagunak) 9. aurreko astean Lisboan parte hartu ondoren. TTT-Iparkaleko mutilak taldeka 6. artean sartzea lortu zuten. Nesketan ere bikain aritu zen Itziar Zugasti (Lagunak), 4. Sailkatuz eta lasterketa ikaragarria egin.



Artutxa, bere lehen triatloian. HITZA

Emaitza hauek hilaren 25ean hasiko den Euskadiko zirkuiturako sasoi batean daudela adierazten dute. Eta pixkanaka duela urte batzuk zuten mailara gerturazten ari dira eskualdeko neska-mutilak.

Hirugarren adinekoei zuzendutako hitzaldia, datorren astelehenean

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzuak *Animazio soziokulturala Adineko pertsonekin: jarduera posibleak* hitzaldia antolatuko du. Lahar Elkargoak, eremu psikosozialaren barnean hainbat arlotan zerbitzuak eskaintzen dituen elkarteak, eskainiko du presatuntza hitzaldi hau, Tolosaldeko hirugarren adineko herritar guztiei zuzendua. Datorren astelehenean, hilaren 12an izango da, Tolosako Iturriza Elkartearen, 17:00etatik 18:30era. Parte hartu nahi duenak 943 654915 (Harizpe), 943 698330 (Iturriza) edo 615 775678 (Bitartekotza zerbitzua) zenbakietara dei dezakete, edo

info@ikastn.com helbidera idatzi. Tolosaldeko Etengabeko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzuak, diruz lagundutakoa da, beraz, doan izango da.

Animazio soziokulturalari buruzko garrantziak ari dira hitzaldian, osasun-ikuspegi integral batetik: fisiko, psikiko eta sozialetik. Pertsona helduek euren pertsonalitatea, gaitasunak eta potentzialitatea garatzen jarraitzeko eskubideaz ariko dira; baita, hezkuntza, kultura eta aisialdiarekin lotutako jardueretan parte hartzeko aukera eduki behar dutela (Pertsona Helduen aldeko Manifestua, Gipuzkoako Foru Aldunditik sustatua), besteak beste.



Alpeetako mendiez eta paisaiez gozatzeko aukera eskaintzen dute beste behin ere Oargi mendi elkarteek. HITZA



Hirugarren aukera gisa, Marokoko Atlas mendikatea proposatzen dute. HITZA



Munduko federatu txartela izan beharko dute bidaia guztiak. HITZA

Mendizaleentzat bidaia paregabeak

Aisia » Oargi mendi elkarteak hiru txango ezberdin antolatu ditu abuztu honetarako; horietako bi Alpeetara dira, eta bestea Atlasera.

ERREDAKZIOA

Oargi mendi elkarteak, abuztuko aporraldiari begira hiru bidaia antolatu ditu, bidaia-irteerak antolatzen ditu, bidaia-irteerak antolatzen ditu, bidaia-irteerak antolatzen ditu. Lehendabiziko biak Alpeetara dira eta hirugarrena, Marokora, Atlas mendietara. Bidaia hau egun nahi duenak munduko federatu txartela izan beharko du. Interesatuak 637 83 03 80 telefono zenbakira deituta eskuratu ahal izango dute informazio gehiago.

Alpeetarako lehen aukera

Bidaia honen iraupena hamaregutakoa izango da. Abuztuaren 15ean irtengo dira Tolosatik, eta Suitzian aurkitzen den Randa herrira joango dira autoz. Hurrengo egunean, gauerako, Dom mendia igoko dute eta aterpetxera itzuliko dira. Tontor honen altuera 4.545 metrotakoa da. Hurrengo egunean Randa herrira jaitsiko dira, hau

ezagutzeko, eta kanpian egingo dute lo. Bidaia bosgarren eguna Zermatt herrian igaroko dute, eta Monte Rosa izeneko aterpetxera joango dira lotara. Abuztuaren 20an, bigarren tontorra igoko dute. Honenbestez, Monte Rosa mendiko Dufourspitze-ko (4.634 metro) gailurra igoko dute. Honen ostean, aterpetxera itzuliko dira lotara.

Hurrengo egunean, berriro indarrak hartzen joateko Zermatt edo Ronda herrira jaitsiko dira, eta han igaroko dute gaua. Abuztuaren 22an, Chamonix-era egingo dute bidaia. Honen ostean, bidaia-irteerari amaiera ematen joateko, aisialdirako denbora libre izango dute Chamonix herrian. Azkenik, abuztuaren 24an, etxera itzuliko dira.

Alpeetarako bigarren aukera

Bidaia honen iraupena ere 10 egunetako da. Lehendabiziko hiru

egunetan elkarrekin ibiliko dirabidaia guztiak eta Dom mendia besteekin batera igotzeko aukera izango dute. Aldaketa abuztuaren 18an dator, izan ere, hauek Randa herrira jaitsiko dira eta ondoren, Chamoixera joango dira gaua igarotzeko. Hurrengo egunean, Guter aterpetxera igoko dira lotara. Abuztuaren 20an berriz, Mont Blanc (4.810 metro) mendira igoko dira eta aterpetxera itzuliko dira. Hurrengo egunean Chamonix herrira bisitatuko dute. Bidaia amaizten joateko, abuztuaren 23an aisialdirako egun libre izango dute herri horretan bertan. Honenbestez, hurrengo egunean etxerako bidaia abiatuko dira.

Atlas mendikatera bidaia

Hirugarren proposamen honek beste lurralde bat ezagutzeko aukera ematen du. Txango honen iraupena ere 10 egunetako izango da eta abuztuaren 15ean abiatuko dira Tolosatik. Lehendabiziko Madrilgo aireportura joango dira kotxez. Han hegazkina hartu eta Marrakechera joango dira. Hurrengo egunean Marrakechetik Imllil herrira joango dira. Handik, Meltz-

ner aterpetxera igoko dira lotara. Bidaia laugarren egunean igoko dute lehendabiziko tontorra. Tizi Melloul (4.167 metro) hain zuzen ere. Egun horretan bertan aterpetxera jaitsiko dira gero, lo egitera. Abuztuaren 19an Toubkal (4.167 metro) igoko dute eta Imllil herrira joango dira berriro.

Hurrengo egunean, Todra bideratuko dira, eta abuztuaren 21ean Gargantas de Todra izeneko parajea ezagutzeko aprobetxatuko dute. Honen ostean Marrakechera itzuliko dira, hemen eguna pasa, eta azkenik, abuztuaren 24an etxe aldera bideratuko dira.

» ABUZTURAKO BIDAIAK

■ **Alpeetara txangoa (lehendabiziko aukera)**. Abuztuaren 15an irteten eta 24ean itzuli. Dom (4.545 metro) eta Dufourspitze (4.634) tontorrak igoko dituzte.

■ **Alpeetara txangoa (bigarren aukera)**. Abuztuaren 15an irteten eta 24ean itzuli. Dom (4.545 metro) eta Mont Blanc (4.810 metro) tontorrak igoko dituzte.

■ **Atlas-etara txangoa**. Abuztuaren 15an irteten eta 24ean itzuliko dira. Tizi Melloul (4.167 metro) eta Toubkal (4.167) tontorrak igoko dituzte.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baseria**. Baseria hartuko genuke errentan bi lagunek. Deitu 656 70 38 14ra.

LANA

■ **Iturgina**. Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuak deitu 685 22 70 58ra.

■ **Sukaldari laguntzailea**. Sukaldari laguntzailea behar da Villabonan. Deitu ondorengo telefono zenbakira: 653 74 10 91.

■ **Sukaldaria**. Sukaldari bat behar da Tolosaldeko jatetxe baterako. Kartan ohitua, jornada erdia eta igandetan jai. Interesatuak deitu 606 61 52 93ra.

EAJri mozioa erretiratzeko eskatu dio ezker abertzaleak

Villabona » EAJk eta PSE-EEK aurkeztuko duten mozioa eskubideen eta indarkeriaren «irakurketa partziala» egiten duela dio.

ERREDAKZIOA

Amasa-Villabonako ezker abertzaleak EAJri PSE-EEekin batera aurkeztu duen mozioa erretiratzeko eskatzen dio. EAJri eta bere zinegotzi bakoitzari, euren sinadurak erretira ditzatela moziotik eskatzen dute. «Gainontzean, eurak ere Villabonako ezker abertzaleko hautetsiren espetxerazeren bat ematen bada, arduradun zuzenak izango lirateke», azaldu dute.

Ezker abertzaleak dioenez, mozioak «eskubideen irakurketa partziala» egiten du. Euskal Herriak dituen «eskubide kolektiboen inguruan» ez duela aipamenik egiten diote. Indarkeriaren «irakurketa partziala» egiten duela ere deritzote. «Aipamenik ez Estatuak demokraziaren izenean egiten dituen hilketa, tortura eta uneoroko errepresioari buruz», diote.

«Herriarren borondatearen gainetik pasa nahi izatea ez delako batere demokratikoa», diote, «herri honen ghiengoz zabal batek

bozkatutakoaren aurka joz». Mozioak helburu bakarra duela azaltzen dute: «Ezker abertzalea kriminalizatzea». Arrasateko alkatea espetxeratu dutenetik hori «agein geratu» dela esan dute.

EAJri PSOEren «ildo errepresiboaren jarraitzaile eta kolaboratzaile sutsua» bilakatu dela leporatzen diote eta «joko horretatik erretiratzeko» eskatzen diote. Egungo gatazka politikoa «erantzule nagusiak aurkitu nahi baditu ez baitu ezker abertzalera begiratu behar, PSOEra baizik», esan dute.

Uriberri erantzuna

PSOEko buruek «hiltzaileei eta torturatzaileei babesa emateaz» asko dakitela dio ezker abertzaleak eta PSE-EEko zinegotzi den Iñaki Uriberri horren inguruan galdetu beharko lioketeela dio. «Haren alderdikideek torturatu baituzten heriotzaraino Lasa eta Zabala, haren alderdikideek sortu baitzuten GAL», gaineratu dute. Bakartxo Tejeria EAJren zinegotziari hori «ahaztu zaio edo berdin zaio», diote.

Uriberri ezker abertzaleko hautetsiak espetxean ikusi nahi dituela diote. «Guk, horretaz jakitun izanik ere, ozen esaten dugu ez dugula euskal herritar bat beraren

heriotzik nahi, eta gatazka honen konponbide demokratikoa behar beharrezkoa dugula. Baina EAJri berdin dio honek», azaldu dute.

Gatazka armatu eta politikoa «konponbide erreala» bilatuko duela dio ezker abertzaleak eta «argi esaten dugu hori lortzeko bidean batzuen hipokresia, demagogia eta parafernalia guztiak ez ditugula onartuko». Arazoaren «sustraitetara jo beharra dagoela argi esaten dugu» eta ez Euskal Herria «espetxe handi batean» bihurtzea. «Horrek gatazka areagotu besterik ez baitu egingo», zehazten dute.

Konponbidea ez litzatekeela zaila izango «benetan demokraziaren defendatzaile izango balira, diruaren defendatzaile diren bezala», diote. Konponbidea «herriarren esku egon beharko luke» beraien ustez. «Euskal herritarrek erabakitze gaitasuna izatea, Paris eta Madrilen esku-hartzerik gabe». EAJ «sasi konponbideen» bila dabilzala deritzote, «Madrilekin paktuak egiten, ekonomikoak gehien batean, AHT lekuko, herri honetara gerra gehiagorik ekarri baino egingo ez dutenak». Gaurko osoko bilkuran «Udaletik gu botatzera eta gure zinegotziak Auzitegi Nazionalaren jomugan jartzera» doazela salatzen dute.



Ezkerretik hasita, Urizar, Monasterio eta Mujika, hiru lehenak. ERNESTO ETXABE

Urizar bigarren, Eibarko duatloian

ERREDAKZIOA

Patxi Urizar billabonatarrak bigarren postua lortu zuen Eibarko duatloian. Lasterka 8 kilometro, bizikletan 32 kilometro eta bukatzeko lasterka 4 kilometro egin behar izan zuten kirolariak. Urizarri duatloian Mikel Monasterio, berrogeita bederatzigarren postua lortu zuen. Urizarren ondoren eta, beraz, hirugarren Gorka Mujika iritsi zen irabazlearengandik mitutez osatutako taldea iritsi zen,

Urizar tartean zegoela. Bigarren segmentuan, borrorak jarraitu zuen eta azken tartera Urizar eta Monasterio batera iritsi ziren. Azken atal horretan Monasterio eta Urizarrek podiuma jokatu dute, baina bermeotarrak oinezko lasterketan jaun eta jabe dela erakutsi du azken lasterketetan eta lehen-babiziko postuan helmugaratzea lortu zuen. Urizarren ondoren eta, beraz, hirugarren Gorka Mujika iritsi zen irabazlearengandik mitutez osatutako taldea iritsi zen,

digitala
h
@

ANTTON IZAGIRRE eta HEKTOR ESPIN

alkate ohia eta hautetsi independentistarekin elkarrizketa digitala

hilaren 8an, ostegunean, 18:00etan

HITZAren erredakzioan izango dituzue zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue.



www.tolosaldekohitza.info webgunean

Hirukidea
Digital Marketing
www.hirukidea.com



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



“ATE IREKIEN EGUNA”

MAIATZAK 8, OSTEguna • ORDUTEgia: 18etatik 21etara

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

la bost milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak aurtengorako

Zizurkil » Gizarte Zerbitzuetara bideratutako diru kopurua ia %40ean handitu dela nabarmendu du Udalak.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak ia bost milioi euroko aurrekontua onartu du aurtengorako, hau da, 4.923.740 euro. Horietatik bi milioi inbertsioetara bideratuko ditu. Zifra hori ia zehazki kopurua baino apur bat txikiagoa da, atal honetara azkeneko legealdietako portzentaiarik handiena bideratu baitzen orduan. «Oraingo honetan, ordea,

Gizarte Zerbitzuen arloko aurreko aurrekontuan xedaturiko kopuruarekiko izango duen ia %40ko igoera da nabarmetzeko datua», azaldu dute Udaletik.

Gobernu taldeak uste du «ezinbestekoa dela inbertsioan ahalegin hau egitea, Zizurkilek herri aurreratu, moderno eta bizi-kalitatea duena bihurtzeko jauzi kualitatiboa ematea behar duen une honetan». Urte askotan inbertsioak «arazo zehatzak eta puntualak konpontzera» bideratu ostean, aurtengo aurrekontuak «ekipamendu eta zerbitzu berriak sortzeko apustua egin du, zizurkildarren ongizatea areagotzeko helburuarekin betiere», diote Udaletik.

Gizarte Zerbitzuen arloko aurreko aurreko den diru-kopuru handiagoa da «Udalaren borondate honen adibide bat». Era honetan, ia zehazki urtean arlo honi xedaturiko 100.000 euro baino zertxobait gehiago baldin baziren, aurtengo 150.000 euro inguruko kopuruak «herriko bizilagunei normalean eskaintzen zaien laguntzak sendotzeko balioko dute, baita ekimen berriak bultzatzeko ere, kaleko hezitzaileak esaterako».

Orain arte, kultura sailetik arreta-zerbitzu bat eskaintzen zen herriko gaztetxo eta gazteentzat, «baina aurtengo zerbitzu hau sendotu, eta arlo honetako garrantziaren arabera azpiegitura sartu

nahi da». Hala, bulego bat irekiko da non kaleko hezitzaileek euren egoitza izango duten, eta kolektibo honen beharrak artatuko diren.

Ugare auzoaren biziberritze lanen amaiera da aurrekontuan jasotzen den beste jarduketako bat; «argi dago horiek amaitutakoan auzoak ekipamendu berriez eta bizi-kalitate hobez gozatzeko aukera izango duela». Iartzara eta Abeletxerako bideak hobetzeko lanak aurtengo egingo dira, Iartzara doan bidearen asfaltatzea gauzatu, eta herrigunearen eta Abeletxeren arteko tratatua antzemandako akats guztiak konponduko dituzte. Asfaltatzeaz gain, areka eta hari-lubetak egingo dituzte.

» GASTUAK

Personal gastuak	1.209.765 euro
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	772.730 euro
Gastu finantzarioak	131.500 euro
Transferentzia arruntak	615.335 euro
Gastu arruntak	2.729.330 euro
Inbertsio errealak	2.004.410 euro
Kapital transferentziak	0 euro
Aktibo finantzarioak	0 euro
Pasibo finantzarioak	190.000 euro

GUZTIRA

4.923.740 euro

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko bidegorri sarea hobetuko duela esan du Udalak. Sarea osatzeko bide desberdinen artean komunikatzaileak eraituzte aurrekusi du. Aurtengo aurrekontua EAJ, EA eta Ezker Batuaren aldeko zortzi botorekin onartu zen. PP alderdiko bi zinegotziak eta PSE-EE alderditik azaldu zen zinegotzi bat abstenitu egin ziren.

Ordunte mendilerroa antolatu du irteera Aizkardik iganderako

Villabona » San Pelaio de Montija herrian hasi eta Balmasedan bukatuko da ibilbidea; guztira 28 kilometro egingo dituzte.

ERREDAKZIOA

Aizkadi mendi elkarteak Ordunte mendilerroa antolatu du irteera igande honetarako. Burgos eta Bizkaia artean baztezen ere muga egiten du mendilerro horrek, bai-

na bere hasieran Kantabriarekin (Espainia) ere bai.

San Pelaio de Montija herritik (800 metro) herritik abiatuko dira eta Zalama mendia (1.336 m.) igozko dute, Menako (Burgos), Sobako (Kantabria) eta Karrantzako (Bizkaia) bailarak banatzen dituen moji baten ondorekin igaro ondoren. Iparmendebalderuntz joko dute Lamanatik (1.202 m.) igarotzeko eta norabide berdinetik jarraituko dute Balgerrira (1.106 m.), Ordunte ere deitzen zaiona, igo-

tzeko. Norabide berdinean jarraituko dute Karrantzako bailara ezkerrean eta Ordunteko urtegia eskubian dutea, Kolitzara (879 m.) joateko, non bertako gainean San Sebastian basiliza dagoen. Bertatik Balmasedara (146 m.) jaitziko dira, Pandozales auzotik igarota.

Ibilbidearen denbora 6,5 ordukoa izango da eta 28 kilometro egingo dituzte. Izena emateko 943 69 44 58 zenbakira deitu edo Aizkardiko egoitzara joan daiteke. Bihar daazken eguna horretarako.



Kolitzako gaina eta San Sebastian basiliza. HITZA

4 sarrera pare
zozketatuko ditugu!

deitu eta eskuratu

A.B.F. ligako partida

AKABA BERA BERA
BM. Ro'Casa

LARUNBATA
MAIATZAK
10 · 19:00
Donostiako Bidebieta Kiroldegian

berabera
EMAKUMEZKO ESKUBALOI TALDEA

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**

hazi
nahi duten pertsonentzat

Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Tolosaldea	Maiatza, Asteartea 13, asteazkena 14 eta osteguna 15. 19.00etatik 21.00etara Tolosako Antonio M. Labaien Kultur Etxean.
Urola Garaia	Maiatza, Asteartea 13, asteazkena 14 eta osteguna 15. 19.00etatik 21.00etara Zumarragako Zelai Arisñ Kultur Etxean.
izena emateko:	943 25 10 05
deitu:	partehartu@baketik.org
webgunea:	www.baketik.org



Larunbatean hasiko dira Izaskun auzoko jaiak

Ibarra » Sei bertsolari eta sei herri kirolari ikusteko aukera egongo da, besteak beste, jaiak iraungo dute hiru egunetan.

kano, Egaña, Arzallus, Lizaso eta Irazu Ibarrauko auzoan izango dira, hori bai, egun ezberdinetan. Herri kirolen inguruan, Urmieta

eta Izaskunen arteko lehiatz gain, Unai Otañoren berragerpena azpimarratu behar da, Aimar Irigoien presentziatz gain.

» EGITARAUA

ASIERIMAZ

Izaskun auzoko jaiak maiatzak 10ean, larunbatean, hasiko dira. Izaskungo Festa Batzordeak hiru egunetarako ekitaldi ugari antolatu ditu, Ibarra Udalaren laguntzarekin.

Herri kirol lehiak, bertsolariak eta mahaiaren inguruan

Mahai inguruetan hitz egiteko aukera egongo den arren, ez da hitzaldirik egongo. Izan ere hamaiketako, bazkari eta afari herrikoiak protagonismo handia izango dute hiru jai egunetan.

Bertsolariak ere ez dira faltako Izaskunen. Mañukorta, Peñagari-

Maiatzak 10, larunbata

■ **18:00.** Herri kirolak: Goenatxo eta Aimar harri-jasotzaileak. Unai Otaño eta Lasa aizkolaria eta Esnaola anaiak trontzan.

■ **21:00.** Bertso afaria izango da Mañukorta eta Anjel Mari Peñagarikanorenkin.

Maiatzak 11, igandea

■ **12:00.** Herri kirolak: Izaskun Urnietaren aurka.

■ **14:30.** Herri bazkaria. Ondoren Egaña eta Arzallus bertsolarien emanaldia.

■ **18:00.** Asto lasterketa.

■ **Ondoren.** Pintxo eta sagardo dastaketa.

■ **19:00.** Herriko trikitilarien eskutik erromeria.

Maiatzak 12, astelehena

■ **10:00.** Diana herriko trikitilarien eskutik.

■ **11:00.** Meza Nagusia.

■ **12:00.** Hamaiketako herrikoia.

■ **13:00.** Bertso saioa Sebastian Lizaso eta Irazurekin.

■ **17:00.** Alurr dantza taldearen emanaldia. Ondoren haurrentzako goxokiak.

■ **18:30.** Bertso saioa Sebastian Lizaso eta Irazurekin.

■ **19:00etatik 20:30era.** Erromeria eta festen amaiera.

Sufritu beharra



» Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Lehenengo aldiz denboraldi hotzetan hiru partida segidan galdu ditugu eta horrek gure lehenagoko egoera bikaina apur bat okertu du. Oraindik alde polita dugu, 5 puntu jaitsiera postuekiko, baina garaipen baten beharra dugu eta hori lortzea majo ari zaigu kostatzen. Izan ere, orain dela hiru aste helburua gauzatu izatea espero genuen, baina porrota jasan genuen Castellonen aurka etxean eta ondoren etxetik kanpoko dinamika txarrari jarraitu diogu eta beste bi partidetan galtzea suertatu da, Hercules eta Poli Ejidoren aurka hain zuzen. Honela aste honetako partidua, Las Palmasen aurkakoa,

oso garrantzitsua da guretzat eta bertan espero dugu falta zaigun garaipena lortu eta falta diren 5 ihardunaldiak lasaitasun osoz bideratzeko aukera izatea. Gure atzetik doa sailkapenean, baina Las Palmasen galdu egin genuen eta badakigu beraiatzat ere partidua garrantzitsua dela, ondorioz lan zaila izango dugu. Nahiz eta taldea momento onenean ez egon, espero dugu etxean urte osoan zehar eman dugun maila eman eta partidua aurrera ateratzea.

Azkenik, jendeak ez diezadan esan Aimarrek irabazten duenean bakarrik egiten ditudala aipuak honakoa aipatu: orain zein ausartzen da pilotaren inguruan balorzio bat egiten? Nork espero zuen Oinatzen Aimarri halako egurra ematea? Pilotak egunetik egunera gehiago txunditzen gaitu. Hori bai, Irujozaleak argi ibili, gustora dauka Aimar kanporatua izan delako eta txapela errazago ikusten dutelako baina ea beste ezusteren bat izan behar dugun hurrengo partidetan.



Belabietako gimnastak Gipuzkoatik Euskadira

IBARRA » Apirilaren 24an Bergaran (Gipuzkoa) jokatu zuten Gipuzkoako Txapelketan emaitza bikainak lortu zituzten Belabietatik aurkeztu ziren hiru gimnastek, hirurak podiumera igo baitziren. Infantiletan Miren Ezeiza bigarren sailkatu

zen. Kadeteetan Izaro Esnaola bigarren geratu zen eta Garazi Egigurenek lehenengo postua lortu zuen. Emaitza horiei esker hirurak Euskadiko Txapelkerako sailkatzea lortu zuten. C mailakoek berriz, pasa den igandean Anoetan 27 tal-

deren artean 7. postua lortu zuten. Belabieta taldeko kideek Saioa eta Laura begiraleek egiten duten lana gorapatu zuten; «Zorionak bada Belabietako Gimnastika Erritmikako Eskola osatzen duzuen guztioi eta segi horrela». HITZA

H Hilberria



**CELESTINO TOLOSA
DORRONSORO**
JAUNA
(Xarra)
Atzo hil zen 64 urte zituela.



Mailuz eta zintzelez tailatu izan duzu egur bizia. Gaurkoan, aldiz, zizelkatzen dizugu gure agurra orri zurian.

IRUNEN
2008ko maiatzaren
7an

Betirako gure artean.

Jose Ramon Tolosa eta Delgado - Tolosa familia.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzan.info / Tel.: 943-65 56 95

G Gutunak

Rikardo Ederra, Topaketak... eta euskara

Duela bi asteburu, zonaldeko ikasle, guraso eta eskolotako partaidea ezberdinen arteko urteroko topaketak ospatu genituen herrian, ongi ospatu gainera. Hala ere, Iruñian beste omenaldi bat egin zuten; duela gutxi joan zen euskaltzale bezain fin zen (edo alderantziz) Rikardo Ederraren aldekoa, alegia. Sortzen mugimendua, Dindaia eta oro har, euskararen aldeko ardura zabaldu zuen "pertsoneiaren" aldeko omenaldia. Benetan hunkigarri eta simple bezain oso eta merzitakoa. Bertan azaldutako irudi eta hitzen muntaia, bere bizitzaz ezagutzen genuen oso laburpen goxo eta betegarria osatu zuten. Edukiak gehiago ezin esan. Beno bai, han azaldu ez arren, aipatu hemen, Leitzetan, Areson, Malerrekana, hainbat eta hainbat bilera, eztabaida eta proiektu ere bidera-

tzan eta mugiarazten saiatu zela, eta tartean gu, baina beti ez bazen ere, gehienetan behintzat, berari zegokion euskaltasunaren itzalpean.

Omenaldian agertu ziren iritzi guzti haieetatik, asko ziren aipagarri, baina batek, esaldi batek laburtu zuen mezua, euskaltzaletasunaren esentzia beharko lukeena. Espartzako herriko ikasle ohiak esan zuena, alegia: Rikardok lortu zuen euskara gure burutan sartzea, beno, gure burutan edota gure bihotzetan. Hortxe gakoa: gure bihotzetaraino bideratzea, hizkuntzak berak, geure bizitzetan suposatutako behar duena, modu afektiboan barneratzea.

Larunbat beroa, Iruñetik presaka Leitzara, bazkal garaira iritsi nahian. Bidean aditutako eta ikusitako hainbat irudi, esaldi, hainbat egi, hainbat onarpen, hainbat laudorio eta hitz goxo, konpromisotutzak eta beste hainbat eta hain-

bat halako, batetik bestera buruan bueltaka. Hona iritsita, herrira, alegia, jantokian zalaparta, giro alaia, bikaina agian. Baina pentsamenduen hodeietatik jaitsarazten ninduten egoerak ere, hurbiletik izan nituen, berriro ere. Behin baino gehiagotan, euskaraz jakin arren, Euskal Eskolaren aldeko festan egon arren, gaztelera sumatzen nuen alboan. Askotan gertatzen da hau, egunero gertatzen da herriko plazan, dendetan, eskolako parkean.

Baina dudarik gabe egun berezia" zen hau, kontraesan handian sumatzen nituen helburu eta eguneroko jardunak. Bakoitzak bere egoeraren aitzakia bila dezake. Dena den, entzungor eginez gero, zaila bihurtzen dugu bidea. Esandakoak zerbaiterako balio ote duentz, ez dakit. Hala ere, askotan bezala, honen beharra sentitzen dudanez, nire sentimendua azaldu nahi dut. Eta hala adierazi nion

bertan zegoen ama bati; neronen arazoa da errealitatea, horrela barneratzea, baina ze pena horrela jarraituz gero zerbait lortzekotan. Soluzioa ez da, baten edota beste baten aurrean euskaraz mintzatzea, soluzioa Rikardoren omenaldian Espartza herriko ikasle ohiak zioen puntura iristea da: euskara bihotzetara eramatea. Gainera, horrela funtzionatuko bagenu, hainbat lan aurreztuko genituzke, dudarik ez egin.

Rikardok telefonoz ordezkari- ren batekin hitz egiten zuenean esaten zion: «- Euskaraz? -No, no entiendo (-Ez, ez dakit)». Eta berak, «-Qué pena, no sabes lo que te pierdes, (-Lastima, ez jakiteagatik galtzen duzun jakinen bazenu)». Euskaraz jakin eta hitz egiten ez zutenentzat, berriz, ez dakit zein esaldi isuriko ote zuen Rikardok, baina nik, horrela "funtzionatzen" duenarentzat, nahiz eta horrelako askotan aditu eta irakurri,

norberaren egoera bizkortu eta animatu nahian, zera esaten dut; Euskaraz bizi, euskaraz mintza! Geroari begira ere merezi baitu!

Ah! Eta esan beharrik ez dago baina, Leitzeko festa-topaketa oso ongi antolatuta zen eta hori lan egin zuten guztiei esker, beraz, guztioi eskerrak. Eta horregatik, euskaldunak garelako, beste egun horren jarraipena hortxe dugu denok, egunero eta une guztietan: euskara normaltasunez hitz egitea eta euskara arlo guztietan erabiltzea.

Eta gaiaz aldatuz, pentsatu behar dugu moduren bat, bazkal garaian bederen, gurasook elkarrekin, denok gehiago nahasteko. Ez al da hala? Zerbait asmatu behar...

Gogora datorren urtean Areson elkar ikusiko dugula euskal irakas-kuntzari eta baita euskarari beste bultzada emanetz! Ordura arte. Ai ooooo!

Mikel Illarregi (Aresoko Eskolako irakaslea). Leitza.

Asteburu honetan hasiko da Herri Arteko Txapelketa

Pilota » Nafarroako 8 herri hartuko dute parte, aurrena ligaxka jokatu dute 2 talde ezberdinetan eta finala uztailaren 5ean izanen da.

NAIARA GARZIA

Datorren asteburuan hasiko da Nafarroako Herri Arteko Txapelketaren 39. edizioa. Aurten 8 herri hartuko dute parte: Leitza, Doneztebe, Oberena-Iruña, Irurtzun, Uharte-Iruña, Uharte-Arakil, Lizarra eta Burlata eta urtero bezala, 4 mailatan lehiatuko dira pilotariak: alebinak, infantilak, jubenilak eta seniorak.

Nafarroakoan irabazle suertatzen denak Euskal Herriko Herri Artekoan jokatu dute, baina txapelketa honetan 3 maila besterik ez dira izaten, Euskadin 14 urtetik beherako pilotariak ez baitute txapelketan parte hartzerik.

Dena den, ez da beharrezkoa parte hartzen duen herri bakoitzak maila guztietan izena ematea, Pakito Sagastibelzta Aurrerako arduradunak azaldu duen bezala. «Herri batnahi duen mailatan aurkez daitezke, adibidez, Uharte Arakil 3 mailatan aurkeztu da, jubenilak ez dituelako».

Aurten Nafarroa mailan 8 herri izena eman dute, Sagastibel-

tzak adierazi duenez, «pilotariak orokorrean izena eman dugun herrietan zentralizatuak daude».

Txapelketan 2 talde

8 herriak 2 taldeetan banatu dituzte eta talde bakoitzak ligaxka jokatu du. Alde batetik, Doneztebek, Oberena-Iruñak, Irurtzunek eta Leitzak, eta bestetik, Lizarrak, Burlatak, Uharte-Arakilek eta Uharte-Iruñak eta talde bakoitze- tik, ligaxka jokatu ondoren, 2 sailkatuko dira.

«Zozketak egin dituzte», dio Pakito Sagastibelzta. «Lehendabiziko partida asteburu honetan daukagu. Ziurrenik igande goizean jokatu dugu, 10:00etan Irurtzunen aurka».

Asteburu honetan hasi eta uztailera arte astebururo norgehiagokak jokatu dituzte. «Gainera txapelketa honek lehen tasuna dauka beste txapelketekin parekatuz gero, adibidez, Herri Artekoan igandean daukagula eta beste txapelketa bat dugula, Herri Artekoan da lehendabiziko».



Joan den urtean Aurrerako pilotariak kanpoko pilotariaren aurka jokatu dute finalaurrekoak, Leitzan. HITZA

Ligaxkan denek denek aurka jokatu dute, taldearen barruan, «beraien herrian eta gure herrian, 6 partida jokatu ditugu, beraz».

Lehenengo urtean, txapeldunak

Sagastibelzta joan den urtean gauzak «oso ongi» ateraz itzazkie- la dio, izan ere, finala irabazi baitzuten. «Baina urte batetik bestera ezberdina da, adinak agintzen baitu neurri batean. Urte batetik bestera aldaketak handiak izaten dira. Gu ilusio handiarekin goaz lehenengo urtekoa eginga, gustura eta harro, baina nik uste aurten apal-apal hortxe ibili beharrek garela. Gure lehenengo urteko urratsa edo helburua sailkatzea litzateke, hori lortuz gero nik uste oso ongi egon litzatekeela».

Halere, Herri Artekoan edozer gauza gerta daitezkeela onartu du.

«Ezin duzu deus baztertu, Herri Artekoan gauza asko gertatzen baitira. Nik gauza bakarra dakit: lehenengo urtean Leitzarekin ez zuten inork kontaktzen eta begira zer gertatu zen, eta igande honetan Oina-

tzeekin ere ez zuten inork kontaktzen eta begira zer gertatu zen...». Amaitezko, «oso txapelketa polita» dela gehitu du. «Ikuslea ere askoz gehiago joaten da, eta beste giro bat izaten da».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Izaskun.** Erromeria Izaskunen: 9:30ean jubilatua oinez igo, ha-maiketako, toka, 12:00etan autobusa, Izaskunera, 13:00tan meza, 14:00etan bazkaria, dantzaldia.

Irteerak

■ **Tolosaldea.** Larramendi kultur bazkuna *Agoteen lurretan* txangoa antolatu du larunbaterako: Baztan, Aldude, Santxotena museoa... Izen-ematea, 943 696450 telefono zenbakian edo *txangoak@topagunea.com*.

■ **Villabona.** Ordunte mendilerroa (Balmaseda) irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak iganderrako. Izen-ematea, elkartearen.

■ **Tolosa.** Beherobi-Irati (Beha Nafarroa) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderrako. Errozate, Irua, Okabe, Mendibel, Art-hanolatze eta Escalier mendiak igoz. Izen-ematea, elkartearen (943 652789).

Deialdiak

■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolak aurrematrikula egiteko aukera zabaldu du egunero 10:00etatik 13:00etara bitartean.

■ **Villabona.** Villabona-Anoeta-Irura jubilatuen ibilaldia larunbatean, 9:00etan Biltokitik abiatuta, Sacem zubia, Anoetako plaza, Irura, Laskibar, zubia eta amaiera Biltokin hamaiketakoarekin. Izen-ematea, Biltokiko bulegoan osteguna bitarte.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritziaren erantzunik.



Kontseiluaren erakusketa ikusgai dago Tolosako Kultur Etxean; bihar izango da hau ikusteko azken eguna. I.T.

Kontseiluaren 10. urteurrenaren harira antolatu duten erakusketa ibiltaria ikusgai dago Tolosako Kultur Etxean; egunotan ekitaldi ugari izango dira eskualdean, 'Euskaraz bai' astearen baitan.

Tolosak ere euskarari bai

ERREDAKZIOA

Euskarari baiezkia eman nahi dio Tolosak. Horrexegatik, egunotan *Euskaraz bai* astea ospatzen ari dira, Kontseiluak bere 10. urteurrena ospatzeko antolaturiko ekitaldien baitan. Ekitaldi ugari antolatu dituzte larunbatera bitarte: kontzertuak, hitzaldiak eta erakusketak, besteak beste.

Hain zuzen ere, Baigorritik heldu zen herenegun herriko Kultur Etxera Kontseiluaren erakusketa ibiltaria. Panelek, argazkiek, ordenagailu bidezko aurkezpenek eta ikus-entzuzkoek osatzen dute erakusketa hau, 16:00etatik aurrera ikusgai dagoena, bihar arte.

Ondoren, Santurtzirako bidea hartuko du erakusketak, eta lurral-

de guztietan izango da Kontseilua. Maite Inda Kontseiluko *Euskaraz bai* dinamika herrietan proiektuaren teknikariak azaldu bezala, «Euskal Herriko herrialde guztietan egongo den erakusketaren bidez Kontseiluak zer lan egiten duen azaldu nahi die herritarrei». Aukera paregabea, beraz, Kultur Etxera hurbiltzeko.

Atxikimendu bila

Ekimenaren aurkezpenean, Nora Olanok, Galtzaundi elkarteko ordezkariak, *Euskaraz bai* astearen nondik norakoak zehaztu zituen. «Herritarren atxikimenduak bilduko ditugu, horretarako *euskaraz bai* esan besterik ez dute beren atxikimendurekin», zehaztu zuen Olanok. Halaber, erakuske-

taren testuinguruan adierazpenari babesa emateko aukera dago. Webgunean ere edozein herritarrek egin dezake gauza bera erraz, www.kontseilua.org/euskarazbai helbidean, hain zuzen ere.

Kontseiluaren ekitaldi nagusia, abenduaren 13an

Ekimenaren aurkezpenean Maite Indak azpimarratu bezala, «euskararen normalizazioan aurrerapauso bat emateko garaia iritsi da. Ez da nahikoa euskararen aldeko izatea. Euskarak hitzuna behar ditu». Hori dela-eta atxikimendua ezinbestekotzat jo dute.

Horretaz gain, erakusketaren aurkezpena baliatu nahi izan zuten 10. urtemugako ekitaldi nagusiaren data eta lekua iragartzeko:

» EGITARAUA

■ **Maiatzak 9, ostirala.** Ertza taldearen *Ostrukaren zuloa*, Villabonako Gurea aretoan, 22:30etan.

■ **Maiatzak 10, larunbata.**

■ Haurrentzako filma Anoetako udaletxean, 16:00etan.

■ *1,2,3 Inaxito* bertso antzerkia, Iru-rako San Migel Plazan, 18:00etan.

■ Deabruak Teilatuetan talde Tolosarraren kontzertua Anoetako Gaztetxean, 22:30etan.

■ Ken Zazpiren kontzertua Zizurkilgo Intxaur frontoian, 22:00etan.

Barakaldoko (Bizkaia) BECen izango da, abenduaren 13an. Kontseilutik herritar guztiei deialdia egin nahi izan die bertan euskarari bai esateko.

berriak 5 urte

Zatoz
gurekin ospatzera!

Eskualdez eskualdeko ekitaldiak

- BERRIAK 5 urte. Bideoa
- Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
- Mokadua

TOLOSALDEKO EKITALDIA

Maiatzak 14, asteazkena, 20:00etan
Tolosako Kultur etxean

berria
luzatu bostekoa

